

M. LARRAMENDI EUSKAL ZUZPERTZAILE

Haren jaiotzaren hirugarren mendeurrena dela eta euskaldungoa Manuel Larramendi josulagun ospetsuari begira jarri da. Andoainen, Garagorri baserrian jaio zen 1690.eko abenduaren 24ean. Haren gurasoak, Txomin Garagorri eta Manuela Larramendi. Beraz, amaren deitura darabil eta ez aitarena. Santi Onaindiak Euskal Literaturan (I) dioenez, amagandikoa ederrago zitzaiolako behar bada, baina josulagunetan sartu zenez geroztik behintzat, hala darabil.


M. Larramendiri begirunea zor dio euskal kulturaz arduratzen den edonork, baina beti aintzat hartua izan arren, gorabeherak izan ditu haren ospeak idazle, euskaltzale eta euskalarien artean. Azken aldi honetan, I. Telletxea Idigoras historialari finari esker batez ere, bere-berea duen goi-maila berreskuratuz doala dirudi. Euskal literaturaren historiaz ihardun dutenen kritikak abiapuntutzat harturik, norbaitzuk haren lanaren alderdi ahula azpimarkatu dute. Aztertzaile eta kritikari guztiak aipatzen dituzten alderdi horiek, bi direla esango nuke: bata, euskarari buruz, baina gehienbat erdaraz idatzi izana; eta bestea, bere hiztegi handian hainbeste asmakeria sartu izana. Oraingo ikuspegitik, egia esan,

bata nahiz bestea tamalgarri zaizkigu; areago Larramendi bezalako idazle bikain eta hitzaren maisu trebea erdararen uretan murgildua ikusirik. Gizon handiengan akatsak nabarmenago agertu ohi dira eta, gure Manuelengan ere hor gelditu dira guztion bistan. Haatik, hori ukatu gabe eta hori gorabehera, harenganako mirespena adierazi nahi nuke KARMEL aldizkariaren irakurleen aurrean.

Buskararen ederraz liluraturik

Euskararekiko zuen atxekimendua handia zen benetan. Zoragarri eta erakargarri zitzaion eta barneko eta kanpoko etsaiak aurrean hartzen zituen, bere dialektika, hitz-jario eta argudioen etorriaz guztiak txikituz. Asmoa ona zen, noski, baina euskara ez zekiten arbuiatzaileen aurrean hizkuntza hau goraiatu behararen garaipatu beharrez, agian, beste Axular gipuzkoar bat galdu genuen euskaldunok. Euskal idazle bikainenetariko bat bai behintzat, idatzi izan zuen apurrean ere hori ongi frogaturik utzi bait zuen. Ez da edonor hori baieztatzen duena, Koldo Mitxelena bera baizik. Honek dioenez, gaztelaniaz zen bezain idazle on zen euskaraz ere, baina bere lan nagusia gaztelaniaz idatzi zuen, euskarazko ataltxo batzuez zipristindurik bada ere. Haren helburua ere, aurreko eta ondorengo apologistena bezala, arrotzen aurrean euskararen dotoretasuna agertzea zen, hizkuntza honen estiloa eta erabilera fintzea baino gehiago.

Errenteriarren eritziz, etorri handiko idazle bikaina zen, hizlaritzaren biribiltasun-kutsua euskaraz nahiz gaztelaniaz nabari zitzaielarik. *Euskaraz bain maisu on eta idazle bikain* izan ez balitz, nekez izango zukeen Mendiburu bezalako hizlari eta idazleengan halako eraginik. *Coreografía* liburuz, XVIII. mendean, ez dagoela, dio, hau baino askoz hoberik mota honetako gaztelaniazko prosan. Eta Mitxelenak hartaz zuen eritzi aparta labur biltzeko, hona esaldiesanguratsu bat hitzez hitz: «sorprende



en realidad que en las historias de la literatura castellana de su siglo, en que tantas obras de erudición se reseñan, no se le conceda un espacio».

Hiztegiko asmakeriei buruz ere badu zer esanik errenteriar jakintsuak. Hiztegiak, fidagarri ez delako eritzia zabaldu dela, dio, eta badela horretarako arrazoirik, hitz berriak («sigilosos y arbitrarios neologismos» dio Ibar-en hitzak aipatuz) parrastaka sartu bait zituen, berak, lotsa keinurik egin gabe, asmatutakorik hiru baizik ez zituela jarri esaten badu ere...

M. Larramendiren hiztegiaren eragina

Asmakeriak direla eta mesfidantza sortzen badu ere, hiztegi hau lan eskerga harrigarria da eta ondorengoengan ezinbesteko eragina izan duena.

Honetaz ere Koldo Mitxelenari narraio. Lexikografia izango dela, diosku «*Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*» liburuan, kritika-lana beharrezkoen duen arloa. Bahe estua erabili eta zorrozki jokatzea ezinbestekoa da alea eta galtzua bereizteko, iturriak ongi ezagutu eta fidagarria zein den eta zein ez antzemateko.

K. Mitxelenak dioenez, gure oraingo lexikografian bada arazorik aski, baina hau ez da ezer Larramendiren hiztegiak kritikari utzi zizkion argitu gabeko arazoan ondoan. Azkueren hiztegia agertzerakoan -dio errenteriarrek- honek hartu zituen Larramendik ordurarte zuen tokia, baita Josulagun handiaren ospe eta izen ona ere, haatik ez zuen lortu hura gainditzea. Hitzek hitz esateko, *pero no acertó a superarle y a hacerle innecesario en adelante*. Azkuek Larramendirekiko izan zuen jarrerak, bi alde ezberdin eta elkarren aurkako ditu: batetik, ez du ezer jakin nahi bere aurretikoaren lexikografiaz; badaezpadakotzat edo du eta ezikusi eta ezentzun egin nahi lioke harengandikoari, eranskinari izan ezik. Bestetik, ate nagusia ongi itxi arren, zirriztu eta ataka guztiak irekirik uzten dizkio eta horri esker, berak

**DICCIONARIO
TRILINGUE
DEL
CASTELLANO,
BASCUENCE,
Y LATIN.
TOMO PRIMERO.**

SU AUTOR

EL PADRE MANUEL DE LARRAMENDI,
de la Compañía de Jesús.

DEDICADO

**A LA MUI NOBLE,
Y MUI LEAL PROVINCIA
DE GUIPUZCOA.**



CON PRIVILEGIO EN SAN SEBASTIAN:

*Por Bartolomé Riego y Monzo, Impresor de dicha M. N. y M. L. Provincia,
Ciudad de San Sebastián, su Condeado, y de la Real Compañía
Guipuzcoana de Caracas.*

baztergarriztat jo zuen Larramendi aurkitzen dugu txitean-pitean Azkueren hiztegian. Jakina, Azkuek ez du zuzenki aipatzen Larramendi, ezkutuan baizik; hau da, beste izen batzuez mozturirik, adibidez, ms-Lond., ms-Otx., Añ., Card. eta abar. Iparraldeko idazle batzuren eragina Larramendiren eragina nabari dela diosku Mitxelenak; esaterako, Hiribarrenengan, baina ez gutxiago Harrietegan. Ondorengo idazle askok Larramendigana eta, beraz, haren hitz berrietara jo dutela. Joakin Lizarragak, Iztuetak, Hiri-barrenek eskubeteka

hartu zituzten, eta J.B. Agirrek, Lardizabalek, Harrietek kontu handiagoz. Larramendi betiko ezkutatu, gaintitu eta baztertu nahi izan den arren, alde guztietatik agertzen zaigu bestela baitakoan. Horrek, akatsak akats eta asmakeria guztien gaineratik, haren garrantzi handia salatzen du.

Euskaldunen zabarkeria salatzen

Arrotzekin eta euskararen etsaiekin gogor aritu zela esan dugu, eztabaidaren plazara bipilki irtenik. Alabaina etsaiak etxean bertan

ere bazituen eta hauen zabarkeria ez zuen inola ere bere hitz-
ezpatatz jo gabe utziko. Hizkuntza honen zorritzarra dela, dio,
kaiku eta ezjakinek ere gai horretan kritika egiteko gauza direla
uste izatea. Urteetako gogoeta, ikerketa, galdeketa, irakurketa,
joan-etorri eta abar egin ondoren hizkuntza biltzea, zehazki bere
arauetan ezartzea neke handiz lortu eta orain, hau miragarria:
euskaldun ezjakin batzu jaikitzen zaizkizu, latinik jakin gabe,
erromantzez gaizki eta euskaraz gaizkiago mintzatzen direla, gai
hauetaz euren buruak maisu egiten dituztela...

Euskalgaiztoz aritzen ziren sermolari alferrentzat ez du hitz
gogorik. Geroko euskal idazle askok ere kezka bera agertzen
digute behin eta berriro. J.A. Mogelek, *Peru Abarka* liburuaren
sarreran eta Frai Bartolomek *Ikasikizunak* saileko I. Liburuaren
sarreran, besteak beste. Hala ere horretan, Larramendi da, behar
bada, sutsuena. Bere *Coreografía de Guipuzcoa* liburuan luze
dihardu horretaz.

Erdarazko sermoiak buruz ikasi eta euskara moduko batetara
airera itzultzen saiatzen omen ziren. Halako anabasarik....! Beste
batzuk, horixe ere ez, kontizu: euskaldun hutsak ziren entzuleen
aurrean erdaraz egin eta kito!

S. Mendiburu-ren *Jesusen Bihotzaren Devocioa* liburuaren
sarreran zera dio:

«Alabañan guchic daqui bere jayoterrico Eusqueraren erdiá,
eta alpérrak diradén bézala, éztute icasi nai gueiágo, ta éztie nai
béren burúai atsecabéric emán. Baña onetatic cer guertatzen dá?
Daquiten pisca arequin, hitz molcho, escúmen baten diña eztán
arequin nola eciñ adierázo dituztén beren escariac, badarasáte
púlpituan hatzera naasi bat, beiñ Eusquéra, beiñ Erdéra, beiñ
Latiñera, guziá leudatuá, ciquindúá, barastuá: ceñean dirudién,

igo diralá gain artará enzúle burlá eguitera: ta arritú oi naz, nolá ascó ta ascó, bulzaca ordú gaistoán áyentzat, bótatzen eztituztén andicán berá».

Euskalkiak hizkuntz ondarearen osagarri

Argi dago euskalkiak maite zituela Larramendik. Sekula ez du euskalkiren bat gutxiesteko hitzik esango, alderantziz baizik. Beste, aldetik euskalkikerian ez da itsutuko. Ondotxo zekien hark euskara, euskalkitan berezia egon arren, hizkuntz sistema bat eta bera zela. Euskararen arima bai, oso-osorik zela bai euskalki bakoitzean eta bai guztietan, baina hizkuntzaren gorputzak ez zuela osotasunik, guztietan baizik. Beraz, batek falta duena bestek du eta alderantziz; hau da, hizkuntz ondarearen osagarri dira eta ez bereizgarri, zein ederrago elkarren lehian eta elkar arbuatzen aritzeko. Zeharo gaitzesten du euskalkien arteko etsaitasuna piztu nahi hori. Gipuzkeran gauza asko adierazteko hitzik ez dela diosku eta orduan gaztelaniara jotzen dela, baina ez euskaran falta delako; bizkaieran, lapurteran, nafarreran aurkituko ditu. Beste horrenbeste gertatuko zaio bizkaieraz, lapurteraz nahiz nafarreraz ari denari: bere euskalkian hitzak falta izango zaizkio, baina, horregaitio, ez du gaztelaniara jo beharrik, auzoko euskalkian aurkituko bait du hari-harira datorren hitza.

Labur bilduz, euskalkien aldeko jarrera ona eta haien arteko harreman eta erlazio bizi emankorrek nahi zituen Larramendik. Hizkuntza euskalkitan zatikatua eta barreiatua egotean, euskalki bakoitzekoak bere inguruan erabiltzen direnen berri duela soilik, diosku. Eta hortik sortzen dela euskara urria delako ustea. Oker hori baztertzearen, euskal hitzak, euskalki batekoak nahiz bestekoak, hiztegian sartu dituela, inolako oztopo eta bereizketarik gabe guztien ondare bihur daitezen: «Para desterrar, en cuanto pueda este embarazo, he hecho estudio de poner en el Diccionario, sin distinción alguna de dialectos, todas las voces que me han

DE LA ANTIGUEDAD,
 Y UNIVERSALIDAD DEL
BASCUENZE
 EN ESPAÑA:
 DE SUS PERFECCIONES,
 y ventajas sobre otras muchas
 Lenguas,
 DEMONSTRACION PREVIA
AL ARTE,
 QUE SE DARA A LUZ DESTA LENGUA.
 SU AUTOR M. D. L.
Con las Licencias necesarias.
 En Salamanca: Por Eugenio Garcia
 de Honorato. Año de 1728.

ocurrido del Bascuence, para que se hagan comunes todas ellas a todos los países y dialectos diferentes de la lengua.

Na haspila egitea, grekoa eta latina bezain ulergaitz den anabasa sortzea egotziko ziotela aurpegira, baina oker. Erdarazko hitzak arrotz egingo zaizkiela; ez, ordea, euskarazkoak, beste euskalki batetakoak izan arren, beti ere kidekoak eta ezpal bere-

berekoak direlako.

Jokabide horrekin beste eragozpen bat ere baztertu nahi luke: giputzak, Bizkaian sartzen denean, ez du hango euskararik ulertzen; beste horrenbeste gertatzen zaio bizkaitarrari ere Gipuzkoan sartzen denean, eta gainerako euskalkietakoei ere bai. Hori ez da gertatzen adizki edo aditz forma ezberdinegatik soilik; bakoitzak bere euskalkiko usadiozko hitzak doi-doi erabiltzen dituelako ere bai.

Beraz, euskalki batekoak nahiz bestekoak jatorri-markarik gabe hiztegian sartzean, euskal hitz gisa jasoko ditu irakurleak eta guztion hitz bihurtuko dira epe laburrean.

Lexikoari dagokionez, euskara batu edo guztiontzakoaren bila abiatu zen andoaindarra, baina bide horretan ia gainditu ezineko oztopoa aipatzen digu: euskalki bakoitzekoak sortzetik dakarrela, dio, besteekiko kontrakotasuna; odolean dakarrela eta giro horretan haziak direla: «la oposición con que los de un dialecto nacen y se crían contra los de dialecto diferente, especialmente en orden al lenguaje, en que mutuamente se tachan y desprecian por insensatas y sin razón alguna».

Larramendirengan, norentzat, idazten duen kontutan izanik, ideia guztiz ezberdinak nabari dira: arrotzentzat eta apologista eran idazten duenean, haizeari puzka ari dela dirudi, baina euskaldunentzat idazten duenean, gaur bertan ere onargarri diren egia biribilak esaten ditu. Esate baterako, hitz arrunten artean, berez euskarazkoak ez diren asko jarri dituela diosku. Jatorriz erdaratikoak izan arren, euskarak, usadioz eta hizkuntza bizi guztiek horretarako duten ahalmenez, beretzakotzat hartuak direlako. Horietariko batzu kaltegarri ere gerta daitezkeela dio, euskarazko hitz jatorrak ahazteko arriskua dakartelako...

Euskara edozein arlotarako gai

Idea hau gaur-gaurkoa da eta Larramendik orain dela ia hiru mende hala uste zuen. Tamalgarria izan zen berak, arrotzentzat idazten zuelako batez ere, bete ez izana.

Hiztegian jakintza-arlo, arte eta zientzietako hitzak ere sartzen dituela dio. Hauetan, euskara, alde batetik, urria dela uste du, bererik ez duelako ia ezer, baina beste aldetik, hitz berriak



sortzeko beharrezko diren sustrai eta iturburuak badituela. Ordurarte euskarak ez zuela horrelako hitzik behar izan, inor ez bait zen arlo horietan aritu; baina oraintxe dela, dio, abagunerik egokiena hizkuntza edozertarako eta edonorako prest jartzeko. Nola jokatu? Hizkuntza landuetatik hartu, asmatu nahiz bere

erroetatik sortu. Ciceron-ek ere, bere garaian, egoera hori ezagutu zuela diosku, eta hark eta haren garaiko hainbatek hitz berri asko sortu zituztela, baina lanari astunegi eritzirik, grekoari jesan edo mailegatu zizkien hitz ugari. Larramendik, euskararentzat, beste bidea hobetsi zuen, hots, haren sustraietatik hitz berriak sortzea, grekoak ere joera hori bait du. Hementxe egon daiteke Larramendiren laprastada larriaren gakoa, asmakeria zentzugabeko askoren bide izan bait zen hori.

Lan ikaragarria

Larramendiren hiztegiaren iturriak ezezagunak zaizkigu. Dirudenez ez zuen iturri oparorik izan. Ez digu berak haien argibiderik ematen. Areago oraindik, hark dioskunari bagagozkio, guztiz originala den lan baten aurrean gaude. Hutsetik hasirik gauzatutakoaren aurrean. Lehendik bazela norbaitek burututako zerbait, diosku, baina hain egitura moldagabe eta traketsa izanik, eraikitakoa desegin eta berriro egin beharrean izan zela.

Ondorengo lerroetan lanaren zailtasuna azpimarkatzen du. Literatura ugari duten hizkuntzetan, liburuak laguntza handia direla; liburuak ugari eta gai ezberdinetakoak izanez gero, haietan aurkitzen dira hitzak, hauen ortografia, erabilera, berezitasuna, adierak, elkarrekiko erlazioak... jakintsuen eta jende trebeen autoritatez oinarrituak gainera.

Gurean, berriz, gogoeta eta sormenari toki handia eman behar. Euskarazko liburuen urritasuna kontutan izanik, beste nonbaitetik jaso behar laguntza hori. Euskaldunen oroimenean eta bihotzean gorderik zegoen altxorraren bila abiatu zen. Ahoz ahozko hitzetara; eskoladunei eta eskolagabeei entzun; herrietan, etxeetan nola mintzatzen zen ohartu; leku batetik bestera asko ibili hiztegiaren euskalkien aberastasuna jasotzeko. Notak hartu, aztertu, erkatu, erabilera jatorra eta traketsa bereiztu, ortografiak nola izan behar

lukeen antzeman, hitzen etimologia ikertu, haien sustriak... Azken batez eta han eta hemen zatika barreiatu zitekeen zegoena bildu eta birmoldatu.

Lan eskerga honen gorabeherak adierazi ondoren, hain barne joridun hizkuntzaren alde lan egiteak benetan merezi zuela esanez bukatzen du.

Bidasoaz hemendik literatura landuaren aitzindari dugu Larramendi, ez berak euskaraz idatzi zuenagatik, eragin zuenagatik baizik. Euskarari oinarri teoriko-lexikografikoak jarri zizkion bere gramatika eta hiztegiaren bitartez; bide batez euskarari ohorea eman zion, bere garaiko euskaldun finak euskara lantzerantz bultzatuz. Guzti horren gainetik, behar bada, euskararen etsaiei eta euskaldun faltsu alferrei jipoi eman zien gizonaren inudua gelditu zaigu.

Luis Baraiazarra